



# Aire Berria jauregian bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia **ZOZKATUKO DUGU**



Bideoak Harpidetza Txokoa DENDA Zorion Agurrak Eskelak Zerbitzuak



OARSO BIDASOKO

## HITZA

BILATU

GAIAK IRITZIA HERRIAK HARA! AGENDA MULTIMEDIA ARGAZKI GALERIAK

Gaur | 28 May 2015

Nork: Hondarribiko Hitza -Api 17, 2013

## ISTRIPUAK PREBENITZEKO HAINBAT HITZALDI EMANGO DITU DYAK DATORREN ASTEAN



Hondarribiko DYAK Osasuna eta Istripuen Prebentzioaren Astea antolatu du heldu den asterako, hilaren 22tik 26ra. Astean zehar hitzaldi eta tailerrak egingo dituzte eta asteburuan istripu baten simulazioa. Jarduera guztiak doan izango dira, baina izena ematea eskatzen da. "35 urte larrialdiez arduratzeak zerbait erakutsi badigu zera da, prebentzioa dela gako nagusia istripuak gutxitzeko eta gaixotasunen agertzea saihesteko", adierazi dute DYAtik.

2009an abiatu zuen DYAK Gipuzkoako Irakaskuntzako Eskola, "probintziako herri ezberdinetan doako jarduerak burutzeko helburuarekin". Horren barruan kokatzen da Hondarribian egingo dute Osasuna eta Istripuen prebentzioaren astea. Doan izango da eta bi ataletan banatuko dute: batetik, hitzaldi eta tailerrak emango dituzte astean zehar eta, bestetik, istripu baten simulazioa egingo dute asteburuan.

Ekitaldi batzuekin zein bestearekin, "ahalik eta pertsona kopuru handienari gaixotasunak eta istripuak saihesteko eta, istripuen ondoren, osasuna eta ongizatea suspertzeko oinarriko kontzeptuak irakatsi" nahi ditu DYAK. Hitzaldiak eta tailerrak astelehenerik ostiralera izango dira, biak barne, 19:00etatik 21:00etara, DYAKo egoitzan (Soroetagan kalea, 6-7, behea).

DYAKo arduradunek azaldu dutenez, asteko jarduera guztiak parte hartzaileak izango dira: "Jarduera guztiak oso parte-hartzaileak izango dira non azalduko eduki teorikoez gain, bertaratutakoentz testigantzek eta parte-hartzaile guztien kontsulta eta iritziekin mahai-inguru batek lekua izango duten".

Osasuna eta istripuen prebentzioaren asteko ekitaldi guztiak doan dira, baina komeni da izena ematea alde aurretik, antolatzaileek jakin dezaten jarduera bakoitzean zenbat jende izango den. Izena emateko bi bide daude, 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu (egun osoan) edo [helbide elektronikora](#) mezu bat idaztea.

## Osasuna eta Istripuen Prebentzioaren Astea. Hitzaldi eta tailerrak

- **Hilak 22, astelehena:** Ohiko larrialdiak eta egoera hauetan izan beharreko jokabideari buruzko hitzaldia: miokardioko bihotzkoa, konbultsioak, zorabioak, traumatismoak, erredurak eta Garun-Baskular istripuak.
- **Hilak 23, asteartea:** Heggailuen oinarriko tailerra: eskua, besoa, sorbalda, oina, belauna eta hanka.
- **Hilak 24, asteazkena:** Etxeko Istripuen prebentzioari buruzko hitzaldia: erredurak, erorketak, intoxikazioak...
- **Hilak 25, osteguna:** Bihotz-biriken suspertzeari buruzko tailerra; bertaratutako guztiek oinarriko mugimenduak praktikatu ahal izango dituzte.
- **Hilak 26, ostirala:** *Zure bihotza zaintzea* hitzaldia; bizitza osasungarri bat eramateko kontuan izan beharreko alderdi guztiez hitz egingo dute.



DYA PREBENTZIOA

Ez dago iruzkinik  
Iruzkinak bidaltzeko saioa hasi behar duzu.



MINBIZIARI IZKIN EGIN SUKALDETIK HASITA



Lotutakoak

ETIKETAK

ATALA

EGILEA



**Lezon sorosle eta lehen sorospen ikastaroa egingo du Gipuzkoako DYAK**

Nork: [Ikerne Zarate](#) - Api 28, 2015

■ Errenteria-Oreeta

**Sorosle eta lehen sorospen ikastaroa, hilaren 12tik, Oiartzunen**

Nork: [Oiartzungo Hitza](#) - Urt 5, 2015

■ Gizartea



**Gehiegikeriei ez, keinuka**

Nork: [Asier Perez-Karkamo](#) - Aza 12, 2014

■ Gizartea

**Gurutze Gorriak udarako istripuak saihesteko informazio liburuxkak emango ditu datorren as**

Nork: [Oarso Bidasoko Hitza](#) - Uzt 30, 2014

■ Gizartea

OARSOBIDASOA

AZKENAK

IRAKURRIENAK

IRUZKINAK